

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3933

84/2025 EBAZPENA, irailaren 15ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) sinatutako 2025eko kudeaketa-gomendioari buruzko akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeei eta landunei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak egiteko.

Gobernu Kontseiluak, irailaren 2an egindako bilkuran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) sinatutako 2025eko kudeaketa-gomendioari buruzko akordioa onartu zuen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeei eta landunei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak egiteko, eta behar bezalako publizitatea emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) sinatutako 2025eko kudeaketa-gomendioari buruzko akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeei eta landunei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak egiteko. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 15a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCIA DE VICUÑA.

2025eko irailaren 19a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN IRAILAREN 15EKO 84/2025 EBAZPENARENA

AKORDIOA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN ETA HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ARTEKO 2025EKO KUDEAKETA-GOMENDIOARI BURUZKOA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK PROGRAMATUTAKO EDO BAIMENDUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEEI NAHIZ LANDUNEI ZUZENDUTAKO EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZAKO IKASTAROAK EGITEKO

Alde batetik, Francisco Pedraza Moreno jaunak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia den aldetik, ente horren izenean eta haren ordezkari gisa jardungo du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Estatutuak onartzen dituen apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren 14.1 artikularekin bat etorritz;

Eta, beste aldetik, Ibone Bengoetxea Otaolea andreak, lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko (HABE) presidente gisa.

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa izaera administratiboa duen zuzenbide pribatuko ente publikoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago. Nortasun juridiko propioa du, bai eta jarduteko gaitasun osoa ere, bere helburuak betetzeko. Haren eginkizunen artean dira enpleguko programak kudeatzea, enplegurako eta autoenplegua sustatzeko prestakuntza ematea eta enpresak sortzea. Enplegurako prestakuntzaren barruan, langile langabeei nahiz landunei zuzendutako prestakuntza dago, beren enplegagarritasuna hobetu edo beren prestakuntza-curriculum handitu nahi dutenei, dituzten aukera profesionalak hobeto garatzeko.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren xedapen gehigarrian (2016ko ekainaren 7ko EHAA) ezarrita dagoenez, enplegurako lanbide-heziketako jardueren eta programen barruan, euskara ikasteko programak emango dira HABE zuzenbide pribatuko ente publikoarekin egindako akordioen bitartez, helburu izanik dena delako arlo profesionalean ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasunak garatzea, lanbide-eginkizunak hobeto betetzea edota lanbide-aukerak hobetzea.

Hirugarrena.– Langile elebidun gaituen eskariak gora egin duenez, agerian geratu da beharrezkoa dela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak antolatutako prestakuntza-ekintza batzuk osatzea, hain zuzen ere, langabeek gaitasun profesionalak lor ditzaten egiten direnak. Horretarako, euskararen ezagutza eta erabilera jasotzeko edo hobetzeko prestakuntza-ekintzak egin behar dira, langabeen enplegagarritasuna hobetze aldera.

Laugarrena.– Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzeko eta Euskal-tegiak araupetzeko azaroaren 23ko 29/1983 Legean xedatutakoaren arabera, HABE zuzenbide pribatuko ente publiko bat da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago, nortasun juridiko berekia du, eta gaitasun osoa du bere eginkizunak betetzeko. Haren egitekoak dira, besteak beste, herritar helduei euskara irakastea eta herritar horien euskalduntzea eta alfabetatzea sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bosgarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ez du giza baliabide eta material nahikorik euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak emateko. HABE erakundeak, berriz, antolakuntza eta baliabide egokiak ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren beharrei espezialitate-baldintza onenetan erantzuteko.

Seigarrena.– Hori dela eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) euskara ikasteko prestakuntza-ekintzen plangintza egin dute, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeen beharrei erantzuna emateko, hizkuntza-gaikuntzako euskarazko prestakuntza-ekintzei dagokienez. Prestakuntza-ekintza horiek HABEren Erregistroan inskribatutako euskaltegietan eta autoikaskuntza-zentroetan egingo dira. Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutako esparruaren barruan, erabaki dute dagokion kudeaketa-gomendioari buruzko akordioa formalizatzea, klausula hauen arabera arautuko dena:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Helburua.

Akordio honek aipatzen duen kudeaketa-gomendioaren helburua da Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) euskarazko hizkuntza-gaikuntzako jarduerak egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten edo parte hartu duten langile langabeei eta landunei zuzendutakoak.

Bigarrena.– Prestakuntza-eskaintza.

1.– Hizkuntza-gaikuntzako prestakuntza-plana euskarazko prestakuntza-ekintzen bidez gauzatu da. Moduluka emango dira ekintza horiek, HABEren Erregistroan inskribatutako euskaltegien eta autoikaskuntza-zentroen ahalmenen arabera, eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko A1, A2, B1, B2 eta C1 erreferentzia-mailekin.

2.– Kudeaketa-gomendio honen xede diren prestakuntza-planaren zati diren prestakuntza-ekin-tzak bi modutan emango dira: aurrez aurre –gehienez 350 orduz– eta teleprestakuntza-modalitatean –gehienez 75 orduz–. 2025eko urrian hasi eta 2026ko ekainaren 30a baino lehen bukatu behar dira.

a) Aurrez aurreko prestakuntzat jotzen da ikasgela batean irakasleek ikasle-talde bati eza-guera berak eta aldi berean transmititzen dizkietenean, edozein motatakoak direla ere erabilitako baliabide didaktikoak.

b) Teleprestakuntzat jotzen da parte-hartzaileak ikaskuntzaren erritmoak bere denborara egokitzen dituenean; horretarako, prestakuntza-prozesua egingo den tokia edozein dela ere, tutore/irakasle bat izango du, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko. Modu horretan, erabilitako materialen edukiak eta ikasle bakoitzaren lan pertsonala osatu edo sendotuko ditu. Metodologia honetan ikasleen artean hitz egiteko eta elkarrekintzan aritzeko saioak emango dira.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzkidura ekonomikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak esleitzen ditu kudeaketa-gomendio hau finantzatzeko guztizko baliabide ekonomikoak. Kudeaketa-gomendio honen xede den prestakuntza-programazioa finantzatzera bideratuko den kreditua 400.000 eurokoa da, guztira: haietatik, 200.000 euro 2025eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 200.000 euro, 2026ko konpromiso-kredituari.

Laugarrena.– Jarduerak finantzatzea.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta HABEk finantzatu beharko dituzte kudea-keta-gomendio honetatik eratorritako jarduerak, irizpide hauetan oinarrituta:

A) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bere gain hartuko ditu hizkuntza-gaikuntzako ikastaroetako maila guztietako ikasleen matrikulen gastuak, HABEk ezarritako honako tarifa haue-tan oinarrituta:

- a) Hiru lurraldeetako hiriburu- eta hiriburu-eremuko euskaltegietan emandako ikastaroen matrikula: 3,50 euro/ordu/parte-hartzaile.
- b) Hiru lurraldeetako beste udal-eremuko euskaltegietan emandako ikastaroen matrikula: 2,80 euro/ordu/parte-hartzaile.
- c) Teleprestakuntzako ikastaroen matrikula: 7,5 euro/ordu/parte-hartzaile.

B) HABEk finantzatuko du irakaskuntza-kostuen gainerakoa, erakunde horrek urtero udal-euskaltegientzat eta homologatutako euskaltegi pribatuentzat egiten dituen dirulaguntza-deialdietan araututako baldintzen eta irizpideen arabera, eta, bereziki, diruz lagundu daitezkeen ikastaro-motei dagokienez.

Bosgarrena.– Funtsen transferentzia.

Hona hemen ordainketa-araubidea:

– Lehenengo ordainketa, hots, prestakuntza-programazioa finantzatzera bideratutako kredituaren % 50, lehenengo prestakuntza-ekintzaren hasieran ordainduko da, HABEren jakinarazpena jaso ondoren, bederatzigarren klausulako 3. apartatuan adierazi bezala.

– Bigarren ordainketa, prestakuntza-planaren likidazioari dagokiona, gastua justifikatu ondoren egingo da, hamargarren klausulan aurreikusten den eran.

Seigarrena.– Prestakuntzaren hartzaileak eta betekizunak.

Euskarazko hizkuntza-gaikuntzako prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahal izango dute langa-beek nahiz landunek, baldin eta, euskarazko hizkuntza-gaitasunak eskuratu edo hobetzeko, eta, hartara beren enplegarritasuna hobetzeko helburua izanik eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan inskribatuta egonik, eskakizun hauek betetzen badituzte:

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak diruz lagundutako edo baimendutako kualifi-kazio-ekintzak egiten aritzea, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko.

– edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak 2021., 2022., 2023. eta 2024. urteetan diruz lagundutako edo baimendutako ekintzak egin izana.

– baldin prestakuntza-ekintza kualifikatzailek egiten ari bada, euskarazko prestakuntza aldi berean egingo da, ekintza hori gauzatu bitartean baina haren ikastorduetatik kanpo.

Zazpigarrena.– Eskaintako hizkuntza-gaikuntzaren publizitatea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren web-orrian (www.lanbide.euskadi.eus) euskarazko hizkuntza-gaikuntzako prestakuntza-ekintzen publizitatea egingo da, prestakuntza eta ikastaroei buruzko atalean, eta prestakuntzaren hartzaileentzat beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko da.

Zortzigarrena.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko dutenak hautatzea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak aurrehautatuko ditu euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroetan parte hartuko duten ikasleak, bere datu-basean inskribatutakoen artetik, eta ente horrek berak koordinatuko du hautaketa-prozesu osoa.

2.– Seigarren klausulan ezarritako eskakizunak betetzen dituztenek hizkuntza-gaikuntzako ikastaroetan parte hartzeko eskaera egin ahal izango dute.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 26an amaituko da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulego-sarearen bitartez edo ente horren web-orriaren bitartez egin ahal izango da eskaera.

3.– Eskaera egin ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztatuko du hautagaiek eskakizunak betetzen ote dituzten, inskripzio-hurrenkeraren arabera eta aurrekontua agortu arte. Eskaera onartuz gero, matrikula-orria Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren webgunetik (www.lanbide.euskadi.eus) deskargatu ahalko da, NireLanbidenet atal pertsonalean, eta euskaltegian edo autoikaskuntza-zentroan aurkeztu beharko da.

4.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik aurrekontua agortuz gero, seigarren klausulan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eskatzaileen zerrenda egingo da, NireLanbidenet-en izena eman duten ordenaren arabera. Pertsona horiek erreserbako hautagai gisa identifikatuko dira, uko egiteagatik, atzera egiteagatik edo beste arrazoi batzuegatik funtsak libratuko balira ere.

Bederatzigarrena.– Euskaltegietan edo autoikaskuntza-zentroetan matrikulatzeko prozedura, eta Lanbideri jakinaraztea.

1.– Eskaera onartu zaien pertsonak matrikula-orria aurkeztu beharko dute HABEren Erregistroan ageri diren euskaltegietatik edo autoikaskuntza-zentroetatik aukeratzen duten hartan. Matrikula-orria aurkezteko epea 2025eko irailaren 29ra artekoa izango da. Matrikula-orriak balioa galduko du egun horretatik aurrera.

Onartutako pertsonak matrikula ez izapidetzea erabakitzen badu, ahalik eta arinen aurkeztu beharko du ukoa, NireLanbidenet bidez edo Lanbideren bulego-sarearen bitartez.

Euskaltegian edo autoikaskuntza-zentroan matrikula-orria izapidetuta, eskatzaileak haren kopia zigilatua bidali beharko du NireLanbidenet bidez, edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulego-sarearen bitartez aurkeztu. Egindako izapidearen egiaztagiritzat hartuko da kopia zigilatua, eta aurkezteko azken eguna 2025eko urriaren 1a izango da.

Matrikula-orrian, interesdunaren izena eta NANA adieraziko dira.

Matrikula-orriko atal bat prestakuntza-ekintza ematen duen euskaltegiak edo autoikaskuntza-zentroak bete beharko du. Atal horretan, honako hauek zehaztuko dira: prestakuntza-moduluaren kodea, hasiera- eta bukaera-datak, eman beharreko ordu-kopurua eta, euskaltegiak edo autoikaskuntza-zentroak prestatuko duen mailaketa-proba baten ondoren, ikaslearen hasierako maila.

2.– Lehenengo matrikulazio-aldia amaitutakoan, Lanbidek erreserbako hautagaien zerrenda kudeatuko du, 2025eko urriaren 1ean eskuragarri geratu diren funtsekin.

Erreserban dauden hautagaiek, eskabidea azkenean onartzen bazaie, HABEren Erregistroan dauden eta eurek aukeratzen duten euskaltegian edo autoikaskuntza-zentroan aurkeztu ahal

izango dute matrikula-orria, Nire Lanbidenet atal pertsonalean matrikula-orria duten unetik hasi eta 2025eko urriaren 15era arte.

Onartutakoak erabakitzen badu ez jarraitzea matrikula izapidetzen, ahalik eta arinen aurkeztu beharko du ukoa, Lanbideren bulego-sarearen bidez edo Nire Lanbidenet-en bitartez.

Euskaltegian edo autoikaskuntza-zentroan matrikula-orria izapidetuta, eskatzaileak haren kopia zigilatua bidali beharko du Nire Lanbidenet bidez, edo Lanbideren bulego-sarearen bitartez aurkeztu. Egindako izapidearen egiaztagiritzat hartuko da kopia zigilatua, eta aurkezteko azken eguna 2025eko urriaren 16a izango da.

3.– Matrikulazio-prozedura bukatu ondoren, HABEk Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari helaraziko dio euskaltegietan eta autoikaskuntza-zentroetan matrikula formalizatu duten pertsonen zerrenda, 2025eko azaroaren 15a baino lehen, urrian hasitako prestakuntza-ekintzen kasuan, eta prestakuntza-ekintzak hasi eta gehienez ere 10 egun baliouduneko epearen barruan. Agiri horretan zehaztuko du, baita ere, pertsona bakoitzak zein euskaltegi edo autoikaskuntza-zentro aukeratu duen, zer maila zuen hasieran, zer maila lortu nahi duen, ikastaroak noiz hasi eta noiz bukatuko diren, eta zenbat ikastordu diren parte-hartzaile bakoitzeko.

Hamargarrena.– Alderdien betebeharrak.

1.– Hauek izango dira HABEren betebeharrak, kasu bakoitzean adierazten den irismenarekin:

a) Euskaltegiekin eta autoikaskuntza-zentroekin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publiko teknikariekin koordinatzea eskatzaileen atxikipena euskarazko prestakuntza-moduluekiko.

b) Bere euskaltegietako prestakuntza-eskaintzan sartzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak hautatutako ikasleak, beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarritz.

c) Aditzera ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak finantzatu dituela programazio honi dagozkion eta dagoeneko egin diren jarduerak.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari prestakuntza-ekintzen hasiera jakinaraztea, ezarritako epean.

e) Ikasleen asistentzia kontrolatzea, eta hileror horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

f) Prestakuntza-ekintzetan bajak egon badira edo norbaitek ekintzak utzi baditu, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari, baita jarduerak egin bitartean gertatzen den edozein gertakariren berri ere.

g) Programari eta ikasleei buruz eskatzen duen informazio guztia ematea Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kontrol- eta ikuskapen-lanen barruan egindako errekerimenduei erantzutea, akordio honen esku jarritako baliabideen kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia egiaztatzeko.

i) Ikastaroetan parte hartzen duten ikasleen aprobetxamendu-maila ebaluatzea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari horren berri ematea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren prestakuntza kudeatzeko aplikazioarekin (LAN-Frekin) bateragarria den formatu batean, hartara, hizkuntza-egiaztatzearen emaitzak ager daitezen prestakuntzan parte hartu duen pertsona bakoitzaren Gaitasunaren Erregistroko kontuan.

j) Gauzatutako prestakuntza-ekintzen gastuak justifikatzea, ezarritako moduan eta agirien bitartez, 2025eko irailaren 30a baino lehen. Justifikazio horretan, dagozkien moduluetan ematen diren eta ikasleek benetan jasotzen dituzten orduen kopurua zehaztuko da.

2.– Hauek izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren betebeharrak:

a) Kudeaketa-gomendiorako akordio honetan oinarrituta egiten diren prestakuntza-ekintzen matrikulak finantzatzea.

b) HABErekin elkarlanean aritzea ekintzak gauzatzean sortutako jazoerak ebazteko orduan, eta aholkularitza tekniko ematea haiek kudeatzeko prozesuan.

Hamaikagarrena.– Gastuak justifikatzea.

HABEK Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan aurkeztuko ditu, 2026ko irailaren 30a baino lehen, kudeaketa-gomendio honen esparruan egindako hizkuntza-gaikuntzako prestakuntza-ekintzen ondorioz sortutako gastuen frogagiriak, hark dagozkion transferentzia agin dezan egoki irizten dizkion egiaztapenak egin ondoren (emandako prestakuntza-orduen kopurua eta ikasleek dagozkien moduluan benetan jasotako prestakuntza-orduen kopurua, bai eta «gai» edo «ez gai» kalifikazioa ere, egindako Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko mailan emana).

Hamabigarrena.– Jarraipen-batzordea.

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko eta HABEko kideek osatua, akordio hau behar bezala kudeatu eta interpretatu ahal izateko, bai eta antolaketaketa-gaien eta abarren inguruan sor litezkeen arazoak konpontzeko ere.

Hona jarraipen-batzordearen osaera:

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren izenean:

- a) Enplegurako Prestakuntzako Zerbitzuaren arduraduna, batzordeburu-lanak egingo dituen.
- b) Enplegurako Prestakuntzako Zerbitzuko teknikari bat, idazkari-lanak egingo dituen.
- c) Enplegurako Prestakuntzako Zerbitzuko teknikari bat.

– HABEren izenean:

- a) HABEko Kudeaketa Zerbitzuaren arduraduna edo hark eskuordetzen duena.
- b) HABEko Ikuskaritzaren arduraduna edo hark eskuordetzen duena.
- c) HABEko Ikuskaritzako teknikari bat.

Hauek dira batzordearen eginkizunak:

- Egin daitezkeen prestakuntza-ekintzen urteko aurreikuspena egitea. Horretarako, nahikoa izango da jarraipen-batzordea osatzen duen organismo bakoitzeko ordezkari batek gutxienez parte hartzea.

- Informazio-trukeko prozesuak aztertzea eta atzemandako arazoak konpontzeko neurriak proposatzea.

- Orokorrean, kudeaketa-gomendio honetan hitzartutakoa gauzatzekoan sortu daitezkeen eragozpenak eta arazoak aztertu eta konpontzeko neurriak proposatzea eta ezartzea.

2025eko irailaren 19a, ostirala

- Bidalitako informazioa aztertzea.

Batzordea gutxienez bi aldiz bildu beharko da: alde batetik, 2025eko azaroaren 15a baino lehen, HABEK 2025eko urrian hasitako prestakuntza-ekintzen berri ematen duenean; eta, bestetik, akordio honetara bideratutako aurrekontuaren egikaritzaren % 75 gainditu baino lehen.

Hamahirugarrena.– Kudeaketa-gomendioaren indarraldia.

Kudeaketa-gomendio hau indarrean egongo da agiri hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik 2026ko ekainaren 30era arte.

Hamalagarrena.– Datuak babesteari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren jardura bi xedapen hauen mende egongo da: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Biltzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide da, eta haren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerkusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurraren aurka egitea eta datuak estatistiketarako erabiltzea ere. Eskuratzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikora (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza kontsultatzeko: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

Hamabosgarrena.– Kudeaketa-gomendioak ez dakar ez eskumenen (Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari esleituak) titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; zuzenbide pribatuko ente publiko horren ardura izango da kudeaketa-gomendio honen xede den jardura material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Bi alderdiek edukiarekin ados daudela adierazten dute, eta, hala jasota gera dadin, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko agiri hau sinatu dute. Formalizazio-data azken sinatzailearena izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 10a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko (HABE) presidentea,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.